

## » TELEGRAMA

Azkaineko gaztetxeak elkartasun gauldia antolatu du otsailaren 5ean: **Pelax** eta **ZZIO** taldeen kontzertua 22:00etatik aurrera **STOP Lemmy Kilmister** Mötörhead taldeko liderra hil zen, baina haren musikak gure artean segitzen du: Gasteizko **Hell Dorado** aretoak haren omenezko festa antolatu du otsailaren 6an, **Mötörhits** tributu-taldearekin **STOP Ukelele zaleek** Bilboko Garabia pabilioian dute hitzordua otsailaren 7an: 17:00etatik aurrera, **Ukedada** antolatu dute **STOP**

## » DISKOA

## Doinu gordinagoak



Joxi Ubeda



### The Uski's THE USKI'S

Baga Biga Produkzioak, 2015

The Uski's taldeak rock and roll, pop rock, surf rock, garage eta pop doinuak uztartzen jarraitzen du, baina apur bat gogortu, gordindu eta amorratu egin da. Disko berriko kantuak gogorragoak dira, eta soinua gordinagoa eta zikinagoa da. Taldekideek melodiak sortzeko erraztasun handia dute, ahotsak garrantzitsuak dira, baina lan berrian koruak ez daude horren landuta eta gitarrek presentzia handiagoa hartu dute.

Taldekideei barrenetik irten zaie hori guztia. "Bizitzak apur bat katramilatu egin zaizkigu", esan zuten udazkenean diskoa aurkeztu zutenean, eta horrek eragina izan du euren musikan. Dena den, haien ohiko bizitasuna, etorria, gaitza eta piperra ez dute galdu, eta dozena

bat kantu polit bildu dituzte lan berrira. Urdulizko Tio Pete estudioan aritu dira, Jose Lastra teknikariarekin, eta ekoizpen lana egin dute.

Iñigo Eiguren (ahotsa), Jon Zameza (gitarra, baxua, ahotsak), Anartz Laka (gitarra, baxua, ahotsak), Oier Laka

(gitarra, baxua, ahotsak) eta Iñaki Astoreka (bateria) dira The Uski's taldeko kideak. Ibarrangelu eta Elantxobe herrietakoak dira, eta inguru horretan erabiltzen duten bizkaieraz kantatzen dute.

Hitzetan, beti bezala, eguneroko bizimoduko kontu txikiez eta ez hain txikiez mintzo dira, eguneroko gertaerez eta egoerez, harremanez eta sentimenduez, baina lan honetan aurrekoetan baino gehiago egin dute kritika soziala eta politikoa: "Zetan ete zabiz egun osue biharrin, bizije bertan izten nahi dozun beste ahal daizun erosi, zetako zabizen gaba ta egun Interneten sekule biziko eztozuzen bizijekaz amestuten" (*Begijek erei*), "Mr. Bajoi hametik dabilenien ustel usaine susmatzen dot airien, ardiz jantzitze etortzen diren arren demoninun buztana hanka tartien" (*Mr. Bajoi*). "Goiza hasten den ba koitzean, zeure aurpegixe agertzen da niri buruen, zelan esan, egunon laztan, eta musiki ipini ta bixok jantzan" (*Goiza hasten*).

Taldea 90eko hamarkadaren amaieran sortu zen, bost disko dauzka kalean *-Itxosun zarati* (Oihuka, 2005), *Barikun* (Oihuka, 2007), *Katuek bezala* (Baga Biga Produkzioak, 2009), *Tximinotan* (Baga Biga Produkzioak, 2012) eta *The Uski's* (Baga Biga Produkzioak, 2015)–, eta kantuz kantu, diskoz disko eta emanaldiz emanaldi sendotzen ari dela nabarmena da. ■

